

Julian Pindado • Malagako Unibertsitateko irakaslea

‘Hedabideen rola gazte nortasunaren eraikuntzan’ gaia landuko du Pindadok, Donostian, EHUren udako ikastaroetan. Atzo izan zuen lehen eguna, eta bihar izango du bigarren zatia.

## «Hedabideen mundua hezkuntza curriculumean sartu beharra dago»

Urtzi Urkizu Donostia

ikus-entzunezko Komunikazioan doktorea da Julián Pindado (Avila, Espainia, 1954). Madrilgo eta Bartzelonako unibertsitateetan ibili ostean, gaur egun Malagako Unibertsitatean ematen ditu eskolak. Hedabideen eta gazteen arteko harremanaren inguruan hamaika artitutu idatzi ditu.

**Hedabideen rola gazteen nortasunaren eraikuntzan izenburuko galaz ariko zara Donostian. Nola aztertu duzu gala?**

Biegunetan banatuko dut. Aurrenekoan [atzo] aztertu dut nola ikerketek telebista eta hedabideen eragin kaltegarriaz hitz egin izan duten. Azken hamarkadetan ikerketak bideratzen ari dira, sozializazioan eta gazteen nortasunean indar gehiago jartzen. Bigarren egunean [bihar] aztertuko dut hedabideek zer eragin duten nerabeen mundu ikaskeran.

**Ikerketa batean berriki adituzera eman dute hedabideek gazteen ikuspegi ezkorra eman ohi dutela. Ez al litzateke egokia joera hori aldatzea?**

Bai, argi dago. Foro batzuetan ikuspegi katastrofista ematen da oraindik ere. Ikusi behar da hedabideek zer rol duten hainbat alorrean, esate baterako gazteen kulturaren. Kultura ez da bakarrik musika klasikoak, komikiak, heavy musika eta gotikoak ere kultura dira. Telebistak ideiak eta balioak zabaltzen dituzte egun oso-



EHU

an, eta hori kontuan hartzeko modukoa da. *Física o Química* telesailak, adibidez, arrakasta handia du, eta ikusi behar da zer mezu zabaltzen dituen. Hedabideak etorri egin dira, gure etxean sartu eta bertan gelditu dira. Geldituko direnez, zezena adarretatik hartu behar dugu. Hedabideekin elkarrekin bizi behar dugu.

**Hezkuntza sisteman ezin al da ezer egin?**

Hezkuntzaren kalitatea hobetu beharra dago. Behar handia dago hedabideen mundua hezkuntza curriculumean sartzeko. Hedabideak irakurtzen eta erabiltzen ikastea garrantzitsua da. Adibidez, ikasleek kanonizatutako eta

ikus-entzunezko testuak idatzen irakastea garrantzitsua dela iruditzen zait.

**Gaurengoko gazteen kontsumo ohiturak ezberdinak dira duela urte batzuetakoan aldea.**

Nerabeak kobazulo elektroniko batean bizi dira, modu platoniko batean. Batetik, bizi duten errealtatea dago, eta bestetik, koba horretakoa. Garai batean, lagunekin harremanetan jartzeko kalera iristen ginen. Orain eguneko 24 orduetan daude konektatuta. Etxera iritsi eta Tuentin sartzen dira, ordubete lehenago hitz egin egon diren gauza berazartzeko.

**Oso kaltegarria al da haur edo nerabe batek telebista ingelana izatea?**

Bai, kaltegarria da. Baina kontuan izan behar da nerabe gehienek dagoeneko telebista ordenagailuko pantailan ikusten dutelako. Ordenagailu eramangarria logotz lan dute, eta hori galaraztea ez da hain erraza. Ideialena litzateke neska-mutikoen praktika elektroniko mediatiko guztiak familiarren espazioan egitea, ezkuta gabe. Baina etxetan praktikatzea jartzea ez da hain erraza.

**Alpatsu gaztetxoek asko erabiltzen dutela Tuenti. Zeintzuk dira sare sozial horien arriskuak?**

Arriskuak beti daude, baina arriskuak erlatibizatu egin behar dira. Pedofilia edo halako kasu egoten direnean hedabide batean areagotu egin dira. Guraren beldurrak etortzen dira orduan. Baina neska gazte bat ez zagun batekin gelditzen baina sare sozialean konektatu ostean berdin geldituko litzateke ez. Gurekin sare soziala gabe. Adibidez, dago gurasoen konfiantza eta gurasoen mendioa garrantzitsua dela, baina nerabeak gehiegi estutu gail. Kontrako bidea hori bidezkoa da. Sare sozialean denbora gehi pasatzea, adibidez, bada arriskutsua.

**Hedabideak ez dira zertik baxuak. Ez, hedabideak hori daude, eta karbiziak naturalizatu behar dugu. Gurasoek eta eskolek zertzea konektatu da. Teknologia: zertzea egingo du, eta denok egitea behar dugu.**